

1- Balorezko proposamena:

Gure produktua plazaratzearen helburua egun euritsuak oztopo ez izatea da, noski, baina oraingo honetan pixka bat harago heltzeko nahia daukagu. Euritako berezi hau praktikoa izango da kalera ateratzeko eskuen beharrik ez baita emango eta eskuak beste gauza batzuetarako erabili ahal izango dira (adib, ume baten karroari tira egiteko).

Honez gain, produktuaren originaltasuna kontuan hartzekoa da, izan ere, diseinu pertsonalizatuak kaleratuko ditugu, gusturako kolore eta estanpatuekin. Eurittak gainera produktu merkea izango da, honen prezioak eskaintza bereziekin batera behera egingo duelarik, guztion eskura dagoen produktua izango direlarik.

